

Euskal AEko industria-jarduera % 1,0 jaitsi da 2024ko maiatzean


Aurreko hilaren aldean (2024ko apirila), produkzioa % 0,5 gehitu da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko maiatzean izandakoa baino % 1,0 txikiagoa izan da 2024ko maiatzean.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 0,5 gehitu da azken hilabete honetan, dagozkion urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunek* urte arteko portaera negatiboa izan zuten 2024ko maiatzean, eta produkzioa % 4,1 jaitsi zen sektore osoan. Beherakada hori *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerari zor zaio. Bertan, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, produktu farmazeutikoak eta jantziak egitea (% 4,6ko jaitsiera) eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren produkzioa* (% 1,9 egin du behera) daude. Azken horien artean altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa jasotzen da, besteak beste.

Bitarteko ondasunen produkzioa (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne) % 2,8 jaitsi da.

Ekipo-ondasunen produkzioa % 1,7 igo da, aurreko urteko maiatzaren aldean: ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza barne.

Energiaren produkzioa, azkenik, % 2,6 igo da 2024ko maiatzean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-1,0	-0,3	0,5
Araba/Álava	-4,0	-3,1	-0,6
Bizkaia	-3,0	-1,0	1,6
Gipuzkoa	2,9	2,0	0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-4,1	-1,9	2,2
Kontsumoondasun iraunkorrak	-1,9	-7,7	5,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-4,6	-0,7	1,7
Ekipo-ondasunak	1,7	3,5	-0,7
Bitarteko ondasunak	-2,8	-1,9	-0,3
Energia	2,6	2,4	2,2

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Uztailaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, produkzioaren jaitsiera handiena izan dutenak, urte artean, 2024ko maiatzean honako hauek izan dira: *Kautxu eta plastikoak* (%-7,2), *Elikagai-industriak, edariak eta tabakoa* (%-5,3) eta *Garraio-materiala* (%-2,9). Aitzitik, urte arteko hazkunderik handienak *Material eta ekipo elektrikoa* (% 7,9) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 7,8) sektoreetan eman dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Maiatza 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-5,3
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	7,8
Kautxua eta plastikoak	-7,2
Metallurgia eta produktu metalikoak	-0,6
Materiala eta tresna elektrikoak	7,9
Makineria eta tresneria	-1,7
Garraio-materiala	-2,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	0,8

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Uztailaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024ko maiatzean Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 4,0 eta % 3,0 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, industria-produkzioa % 2,9 gehitu da.

2024ko MAIATZEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen bost hilabeteetako metatua, Industria Produkzioaren Indizea % 0,3 jaitsi da. Maiatzera arte metatutako produkzioa % 1,9 jaitsi da, bai *Kontsumo-ondasunetan*, bai *Bitarteko ondasunetan*. *Ekipoko ondasunek*, aldiz, bilakaera positiboa metatu dute, produkzioa % 3,5 igo baita aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Energian*, bestalde, maiatzera arte metatutako produkzioa % 2,4 hazi da.

Lurralde historikoka, 2024ko lehenengo bost hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 3,1 eta % 1,0 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 2,0 hazi da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **89,14ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62